

# Donostia euskalduna



Jose Luis Alvarez Enparantza 'Txillardegi'

Idazlea

**H**as aitzin, gogora Hego Euskal Herriko lau hiriburuen ezaguera: Donostian % 26,7, Bilbon % 9,1, Iruñean % 6,1 eta Gasteizen % 5,0.

Lau zifra horiek begiratu besterik ez da behar, hiri euskaldun bat inon eraiki nahi badugu, hiri hori Donostian eraiki behar dela ondorioztatzen.

Gipuzkoa, bestalde, geografikoki erdian dagoenez, eta alde guztietatik euskaraz mintzo diren eskualde inguratua, Donostiari dagokio Euskal Herri euskaldunaren zuzia hartzea.

Gazteriaren aldetik ere, Ibaeko Unibertsitatearen inguruan sortzen hasia den gune euskaldun eta euskaltzalea delata (aurki Zorroaga hara bilduta azkarturik), hiriburuetan euskaldun kutsuaren txertakuntza Donostiari dagokio.

'Atzo arte', nolazpait esateko, Donostia euskalduna izan da, 'Lopexene', 'Bixente txiki', 'Kaxeta', 'Bixi', eta beste ha maika izen hor daude, Donostia osoan barrena, esten dugunaren lekuko.

Areago, 'Antigua 1900' neure


liburuan kondatu dudanez, orain dela mendebete euskaraz jakitea ezinbesteko baldintza zen auzo hartan 'médico de barrio' izateko. Bestela esanda, euskaldun huts asko zegoen bazterretan.

Lekuko bikaina mende honen haseran hil zen Eujenjo Gabilondo fuerista ezaguna. Donostiar eta 'erriko-xeme' porrokatua, 'A través de Iruñulo' liburuak benetan merezi du irakurketa.

Parte Zaharreko bost iturriez mintzo zaigularik, esate baterako, ingurura biltzen ziren neska-multzoak aipatzen dizkigu, ura hartu zai; eta entzun ohi zen galdera aldakaitza hitzez-hitzez kopiatzen: 'azkena zein da?'. Euskaraz, alegia.

Euskararen maila ere ez da gaurkoa: 'sartuko al gera, Indalezio?'; (gaur erdal kutsuko 'sartzen al gera' hori nagusitu zaiorenarik).

Donostiako haur-jokoak ere, euskaldun agertzen zaizkigu osoki; 'labian al dana', 'kalabentan', ... Gabilondo-ren gaitzizena bera, 'Calei-Cale', euskal belarriaren arabera eraturia ('kalerik kale' idazten duguna, 'kaleikale' ahoskatzen baita, inolako gemi-



*Unibertsitatean sortzen hasia den gune euskaldun eta euskaltzalea delata hiriburuetan euskaldun kutsuaren txertakuntza Donostiari dagokio.*

naziorik gabe), euskararen erabilpenaren neurria da. Donostia ere, bidenabar esateko. 'Donostiya' da, ez 'Donosti', eta are gutxiago hiru silabatako 'Donostia' arrotz hori.

Nola onartuko genuke beraz, Donostiako udal zerbitzariak, Alkatea gailen, erdaldun hutsak izatea? Zein euskaltzalek onar dezake gaurko Alkateak, aspaldian lehen aldiz, euskaraz ez jakitea? Zer Donostia-mota begiratzen du izendapen horrek, San Sebastian montañesa ez bada?

Mintza berriro begikio Gabilondo bera: «En mis tiempos parecía circunstancia indispensable el conocimiento de la lengua vascongada para desempeñar un cargo dependiente del Municipio. Hoy, dicha circunstancia viene a ser perjudicial a juzgar por los 'belarrimoches que con el bastón de autoridad en la diestra, recorren las calles dándose pisto».

'Calei-Cale' gizajoak ez zuen okerrena ikusi.

Okerragorik ere ikusi dugu guk, ondorengok.

Baina 'agian' (ipartarrek esan ohi duten adieraz), hoberik ikusiko al dute gure bilobek!

Gehigarri baten lekuko gara hortan egonik ardatza Donostialdean ba omen dago hizkuntzaren esperantza tinta paperez ipini dezan gure Bilintxen urratsa Donostiaren berriemaile eta euskararen haitsa

Donostian egun bizi dugu euskara larri estua hil baino lehen bizitu nahi dugu eta jarri babestua gure hizkuntzaz inprimaturik dugu gehigarri prestua lortu behar da jende laguntza ta irakurle prestua.

Gatazka dugu luzarorako gainera hainbat istilu gainbehera doan gure hizkuntza herria dugu testigu suspertu dadin gehigarri honek egin behar mirakulu hiriburuko mezularia ta euskararen ispilu.

Doinua: Ari naizela ari naizela.

Iñaki Agirresarobe

Donostiako bertso eskolako arduraduna



Egunkaria

Zuzendaria: IÑAKI URÍA

Koordinatzailea: IZASKUN BASTERRETXEA

Publizitatea: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK:

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industriaidea 01-02 Pabiloak/20160 Lasarte-Oria/telef. 37 15 45/ Faxa: 36 54 93. Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. 20010 Donostia/telef. 46 90 22/ Faxa: 45 59 75. Araba: San Antonio, 20-1. ezker/01005 Gasteiz/telef. 23 38 72/ Faxa: 23 38 73. Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. /Irritzi dorrea/31011 Iruñea/telef. 17 80 78/79/ Faxa: 17 80 77. Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuna/48002 Bilbo/telef. 423 90 62/ Faxa: 423 94 60. Lapurdi/Nafarroa Beherea/Zuberoa: 503 Posta Kuratila, /64105 Baiona/telef. 59 59 35 75/ Faxa: 59 25 75 11.

Batzorde Parekidea: 72564 L., Lege. Gordinola: SS 800/90

LAGUNAK

AITOR IKASTOLA  
AMASORRAIN IKASTOLA  
ARANTZAZUKO AMA IKASTOLA  
AXULAR LIZEOA  
BARANDIARAN LIZEOA  
HERRI AMETSA IKASTOLA  
IBAI IKASTOLA  
INTXAURRONDO IKASTOLA  
IKASBIDE IKASTOLA  
JAKINTZA IKASTOLA  
ORIXE IKASTOLA  
SANTO TOMAS LIZEOA  
ZURRIOLA IKASTOLA

**DONOSTIAN**  
euskararen eta  
euskal kulturaren  
alde lanean  
ari diren ikastolak